



IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25787 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Oinarrizko Legeria

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgaia, jarduera fisiko eta kirolaren oinarrizko legeriaren sarrera gisa aurkezten da. Ikaslea zuzenbide positiboaren barne dagoen jarduera fisikoaren eta kirolaren ordenamendu juridikoan barneratuko da eta bide batez jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako profesionalen funtzioak eta eginkizunak ezagutuko ditu. Halaber, kirol erakundeak eta bertako funtzionamendua zuzentzen duen ordenamendu juridikoa landuko da, etorkizuneko profesionalen ekintza eremuko oinarriak finkatu asmoz.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1.-Heziketa fisikoaren eta kirolaren antolaketa juridikoa aztertu.

Ikasketa emaitzak 1: ikaslea heziketa fisikoaren eta kirolaren antolaketa juridikoa ezagutu eta aztertzeke gai izango da.

2.-Indarrean dagoen eta jarduera fisikoaren eta kirolaren esparrua arautzen duen ordenamendu juridikoa aztertu arloko etorkizuneko profesionalen funtzioak eta beren ekintza eremuaren nondik norakoak ezagutu.

Ikasketa emaitzak 2: ikasleak indarrean dagoen eta jarduera fisikoaren eta kirolaren esparrua arautzen duen ordenamendu juridikoa ezagutuko du arloko etorkizuneko profesionalen funtzioak gauzatu eta beren ekintza eremuaren nondik norakoan aplikatzeko.

3.-Indarrean dagoen eta kirol alorreko erakundeak arautzen dituzten ordenamendu juridikoa aztertu eta beraien ekintza eremuaren mugak ezagutu.

Ikasketa emaitzak 3: ikasleak indarrean dagoen eta kirol alorreko erakundeak arautzen dituzten ordenamendu juridikoa ezagutuko du beraien ekintza eremuaren mugak ezagutzeko.

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK:

G018. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) JFKZren esparruan aplikatzen jakitea.

IKASKUNTZA EMAITZA

Ikasleak IKTak egoki erabili eta aplikatzeko gai izango dira, jarduera fisiko eta kirolaren arloko legeriari dagozkion esku-hartzeetan sorturiko beharrei eraginkortasunez erantzuteko. Konpetentzia hau ebaluatu eta kalifikatuko da.

G022 Ariketa profesionalean zuzentasunez aritzeko beharrezkoak diren printzipio etikoak ezagutzea, eta horien arabera jardutea

IKASKUNTZA EMAITZA

Modu kritikoa baloratzen ditu jarduera fisikoaren eta kirolaren legeria eremuan zuzenbidea helburu duten esku hartze ez koherenteak. Konpetentzia hau ebaluatu eta kalifikatuko da.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

0. gai multzoa: Hurbilketa. Oinarrizko kontzeptu juridikoak
1. gai multzoa: Heziketarako eskubidea. Hezkuntzako marko juridikoa
2. gai multzoa: Kirola, fenomeno juridiko eta ondasun konstituzional babestua
3. gai multzoa: Erakundetze eskubidea eta kirola. Kirol asoziazionismoa eta kirolaren garapena
4. gai multzoa: Kirol diziplina sistema
5. gai multzoa: Kirol titulazioak
6. gai multzoa. Kirol profesionala
7. gai multzoa: Kirolean dopajearen aurkako borroka

METODOLOGIA

Ikasleen parte-hartzea eta inplikazioa garrantzitsua da ikasgai honen garapenerako. Horretarako honako metodo eta teknikak erabiliko dira, ikasleen parte-hartze aktiboan, bereziki, indarra jarriz: irakaslearen azalpenak, banakako eta taldekako jarduerak, arazoaren ebazpena, proiektuen diseinua, dokumentuen irakurketa eta azterketa, analisi eta ebaluazio jarduerak eta mintegiak.



IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45	5	10						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5	7,5	15						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 50
- Banakako lanak % 10
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 25
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 15

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

1) ETENGABEKO EBALUAZIOA

ETENGABEKO EBALUAZIO SISTEMAREN BIDEZ EBALUATU AHAL IZATEKO IRIZPIDEAK:

- (%50) Proba idatzia (azterketa)
- (%25) Talde lanak
- (%15) Lanen eta irakurketen aurkezpena
- (%10) Banakako lanak

Ikasgaia bi zatitan banatuko da:

- a) Notaren %50: saioetan garatutako edukiak ebaluatuko dira. Aurkezpen eta klaseetan emandako azalpenez gain, jarduerak, klasean erabilitako material osagarriak eta baliabideen erabilera ebaluatuko dira.
- b) Notaren %50: taldekako lan zein zereginak eta lan pertsonalak baloratuko dira. Era presentzian eta ez presentzian egingo dira lauhilekoan zehar, zehaztutako epeen barruan aurkeztu eta eGelara igoz.

(*) Bi atal hauetako bakoitza gainditzea beharrezkoa da, gutxienez 5 batekin, ikasgai hau gainditu ahal izateko. Nota partzialak ikasturte akademiko berean soilik gordeko dira.

(**) Ebaluazio proba hauek ahozkoak izan litezke.

DEIALDIARI UKO EGITEA:

Ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio ikasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko ikasgaiaren kasuan edo 18 astekoa urteko ikasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita.

2) AZKEN EBALUAZIOAREN SISTEMA

Ikasleak eskubidea izango du ikasturtean zehar landutako eduki guztietan ebaluatu ahal izateko, bai teorikoak, bai praktikoak, azkeneko proba batean. Azkeneko proba hori bi atalez osatuta egongo da, zati batean eduki teorikoak eta beste zatian eduki praktikoak ebaluatuko dira, ikasturtean zehar astez aste lantzen joan diren zeregin, lan eta gai-multzoak barne hartuko dituztenak.

(**) Ebaluazio proba hauek ahozkoak izan litezke.

AZKEN EBALUAZIOKO DEIALDIARI UKO EGITEA

- Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.
- Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko ikasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio ikasgaiaren ardura duen irakasleari.
- Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

ORIENTAZIOAK:



Ezohiko deialdian, egin beharreko proba bi zatiz osatuta egongo da: zati teorikoa eta praktikoa.

Etengabeko ebaluazioaren sistema hautatu baina ikasgaia bere osotasunean gainditzea lortu ez duten ikasleak ezohiko deialdira aurkeztu ahal izango dira eta gaindituriko ataletako notak gordeko dira (ikasturte akademiko berekoak, soilik).

(**) Ebaluazio proba hauek ahozkoak izan litezke.

DEIALDIARI UKO EGITEA:

- Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua irakasgaiko kalifikazioaren %40 baino handiagoa bada, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua irakasgaiko kalifikazioaren % 40 edo hori baino txikiagoa bada, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

- Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

USTEZKO IRUZUR, KOPIA EDO PLAGIOAREN AURREAN

Ebaluazio proba batean iruzur, kopia edo plagioa antzematen bada, ikasgelan dagoen irakasleak azterketa eta kasuan kasuko materialak entregatzeko eskatuko dio ikasleari, eta gertaeraren berri jasoko du idatziz. Irakasgaiaren ardura duen irakasleak ikasleari jakinaraziko dio suspentso kalifikazioa (0.0) daukala.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- E-gelaren bitartez bideratutako materiala ezinbestekoa izango da ikasgaiaren jarraipena egiteko.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

AGUILERA FDEZ. ANTONIO (1996). Ensayo Sobre la libertad de cátedra y el derecho a la educación. Libertarias/Prodhufi, Madrid.

DÍAZ GONZÁLEZ, TANIA. (1973). EL DERECHO A LA EDUCACIÓN. Universidad de Navarra, Pamplona.

ELIPE SONGEL, JUAN ANTONIO (2003). Historia constitucional del derecho a la educación en España. Nomos, Valencia.

ESPARTERO CASADO, JULIAN (Coord); ALLUE BUIZA, ALFREDO; CALONGE VELAZQUEZ, ANTONIO; PALOMAR OLMEDA, ALBERTO; RODRÍGUEZ MERINO, ABELARDO; VILLAREJO GALENDE, HELENA.(2004): Introducción al Derecho del Deporte, Dykinson, Madrid.

GALLEGO ANABITARTE, ALFREDO. (1994) Derechos fundamentales y garantías institucionales: análisis doctrinal y jurisprudencial: (derecho a la educación, autonomía local, opinión pública). Civitas, Madrid.

LÓPEZ MEDEL, JESÚS, FRAGA IRIBARNE, MANUEL, OTROS. (1995). Hacia un nuevo derecho a la educación: principios filosófico-jurídicos y comunitarios en la política educativa de la Unión Europea. Dykinson, Madrid

MARTÍNEZ DE PISÓN, JOSÉ. (2003) El derecho a la educación y la libertad de enseñanza. Dykinson, Madrid.

NAYA, LUIS MA, COOR. (2006) El derecho a la educación en un mundo globalizado. Erein, Donostia.

--(2001)Aspectos administrativos del derecho a la educación: especial consideración de las universidades públicas. Consejo General del Poder Judicial, Madrid.

Gehiago sakontzeko bibliografia

AGUILERA FERNANDEZ, A. (1992): Estado y Deporte. Legislación, organización y administración del deporte, Comares, Granada.

AGIRREAZKUENAGA, I. (1998): Intervención pública en el deporte, IVAP-Civitas, Madrid.

CAMPS POVILL, A. (1996): Las Federaciones Deportivas. Régimen Jurídico, Civitas, Madrid.



CARRETERO LESTÓN, J.L. (2002): ¿Las formulas legales para fomentar el patrocinio y el mecenazgo deportivos a nivel estatal: ¿ Ley deportiva o ley fiscal?¿, Las Leyes del Deporte de la Democracia: Bases para una Ley del siglo XXI, UIMP-Dykinson-Caja de Granada, Madrid.

CAZORLA PRIETO, L.Mª (1992): Derecho del deporte, Tecnos, Madrid.

ESPARTERO CASADO, J. (2000): Deporte, asociacionismo deportivo y derecho de asociación: las federaciones deportivas, Universidad de León, León.

MAYOR MENÉNDEZ P., ARNALDO ALCUBILLA, E. y DEL CAMPO COLAS, C. (Coords.) (1997): Régimen jurídico del fútbol profesional, Civitas, Madrid.

PRADOS PRADOS, S. (2002): Las licencias deportivas, Bosch, Barcelona.

PALOMAR OLMEDA, A., RODRÍGUEZ BUENO, C. y GUERRERO OLEA, A. (1999): El dopaje en el ámbito del deporte. Análisis de una problemática, Aranzadi, Pamplona.

PALOMAR OLMEDA, A. (2013): El dopaje en el deporte., comentarios a la Ley Orgánica 3/2013. Madrid: Dykinson.

PALOMAR OLMEDA, A. (2013): Derecho del deporte. Aranzadi, Pamplona.

TEJEDOR BIELSA, J.C. (2003): Público y privado en el deporte, Bosch, Barcelona.

Aldizkariak

Revista española de Derecho Deportivo
ISSN:1132-9688. Depósito Legal:M-8403-1993.

Interneteko helbide interesgarriak

Irakasgaiko edukiekin erlazionatutako erakunde eta atarien web orriak.

Jusport

CSDren web ataria: <https://www.csd.gob.es/es/csd/organizacion/legislacion-basica>

OHARRAK